▪ **Posta elektronikoa:** Hezkuntza Departamentuaren eta ikastetxe publikoen eta itunduen arteko komunikazioetarako erabiliko da:

gratuidad.libros.texto@navarra.es

2020-2021 ikasturterako ikastetxe bakoitzeko egoera izanen da aitzineko ikasturteetan hartutako erabakien ondoriozkoa (sorten berritze osoa, partez berritzea edo sorta zaharrak atxikitzea).

1.- IKASLE HARTZAILEAK

1.1- 2020-2021 ikasturtean hartzaileak izanen dira funts publikoak jasotzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan matrikulatutako ondoko ikasleak:

▪ **Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetan matrikulatutako ikasleak** (sortak ikasturte bakoitzean berritzen dira)

Lehen Hezkuntzako lehen zikloan ikasleek bakarka erabiltzen dituzten testuliburuak edo curriculum materialek ezaugarri jakinak dituzte eta, hartara, Doakotasun Programan modu berezitan tratatu behar dira. Irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 2.2. artikulua aurreikusten du ziklo honetan ez dela testuliburuaren iraunkortasunaren baldintza eskatuko eta haiek ikasturte guztietan erosi beharko direla. Hori hala izanik ere, erabilitako materialagatik haiek berritzea nahitaezkoa ez den irakasgaietan, ikastetxeak erabaki dezake haiek berrerabiltzea hurrengo ikasturteetan, Lehen Hezkuntzako gainerako ikasmailatan bezala. Beraz, ikastetxeak honako destinoen artean erabakitzen ahalko du:

- Ikasleari uztea
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...)
- Testuliburuak mankomunitateen bidez birziklatzea (lehenik eta behin, liburuari kendu beharko zaizkio forrua eta ikaslearen identifikazio datuak dituen orria).

. Lehen Hezkuntzako nahiz Bigarren Hezkuntzako gainerako ikasmailatan:

a) Oraindik ere **5 urte baino gutxiagoko** sortak indarrean egonez gero, %0,5koa baino ezin da izan testuliburu hondatuak ordeztzeko portzentajea, eta liburu-sortak 2019-2020an **partez berritu** dituztenendako, berriz, berrituriko partearen %0,5koa.

c) ORDEZTEA aukeratuz gero (hots, 5 urte baino gehiago duten liburuak atxikitzea)

- Ikastetxeak berriz ere aukera izanen du::

- Liburu berriak hautatzeko:
- Dazkan liburuak ordeztzeko:

Ordeztea aukeratzen bada (hots, zaharrekin segitzea), gehienez ere %25 ordeztzen ahalko dira, aurreko urteetan bezala.

Ezinezkoa bada testuliburu berberak atxikitzea, ikastetxeak haiekin zer egin erabaki ahal izanen du, ondoko aukeren artean:

- Ikasleari uztea
- Ikastetxean berrerabiltzea (liburutegian, erabilera orokorrerako...)
- Testuliburuak birziklatzea, bakoitzak bere mankomunitatearen bitartez.

- **OHAR GARRANTZITSUA GAI HONI BURUZ:** Ikasmailaren batean 5 urte baino gehiagoko sortak zituzten ikastetxeek eta aurreko bosgarren urtea egin duten ikastetxeek bakarrik igorri behar izan dute "**hautatutako aukera**" azaltzen duen agiria. Ikastetxe horiei **Hautatutako aukera** eskatu zaie jada posta elektronikoen bidez; beraz, ikastetxeren batek ez badu jaso "**Hautatutako aukera**" eskatzen duen mezua, horrek esan nahi du Liburu Sorta Berriak dituztela (hots, ikasmaila guztietan 5 urte baino gutxiago dituztenak) eta ez digutela ezer igorri behar.

▪ **Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak**, hots, halakotzat diagnostikatu direnak, derrigorrezko hezkuntza zeinahi ikasmaitan matrikulaturik daudela ere. Ikasle hauen tratamenduari dagokionez, ikastetxeek seigarren jarraibidean zehazten denari jarraituko diote.

1.2.- Legezko ordezkariak uko egitea: programari uko egitea erabakitzen denean, legezko ordezkariak, ikaslea zeinahi ikasmaitan matrikulaturik dagoela ere, "Uko egiteko agiria" bete eta ikastetxean utzi beharko dute horretarako adieraziko zaien epean.

Uko egiteko agiri hori legezko ordezkarien eskura izanen da ikastetxean eta webgunean. Halaber, Educac eskuratzen ahal da, hemen: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPB ("PDFtxostena sortu" botoia), ukoa erregistratu ondoren.*

1.3.- Departamentuari jakinaraztea: EDUCA aplikaziotik hartuko da matrikulari eta aukeratutako testuliburuak edo materialari buruzko informazioa. Horretarako, ikastetxeek datuak **2020ko abuztuaren 31 baino lehenago** bete beharko dituzte.

1.4. - Emate- eta itzulketa-agiriak: testuliburuarekin batera, ikastetxeek, zeinahi ikasmaitan matrikulaturik daudela ere, ikasleen legezko ordezkariak "Emate-agiri" bat ematen ahal diete (agiri horretan emandako liburuen zerrenda agertuko da). Legezko ordezkariak sinatu ondoren, ikastetxean utziko dute. . Educac, *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuen esleipena ("Hartu-agiria" botoia), esleipena erregistratu ondoren.*

Ikasturtea bukatutakoan, ikastetxeek "Itzulketa-agiria" emanen diete, sinatua, hala eskatzen duten ikasleen legezko ordezkariak. Egiazki itzulitako liburuak agertuko dira agiri horretan. Educac, *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak ("Itzulketa-agiria" botoia), itzulketa erregistratu ondoren.* Halaber, badago "Itzulketa eskutitza", non itzuli ez diren edo hondatu diren liburuak zehazten baitira.

2. TESTULIBURUAK ITZULTZEA IKASTURTEA AMAITZEAN.

2.1.- TESTULIBURUAK ITZULTZEA:

- **Itzultzea**: Oinarrizko irakaskuntzarako testuliburua finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legearen garapenerako araudia onetsi zuen irailaren 27ko 61/2010 Foru Dekretuaren 7.1 artikulua honela dio: "Testuliburuaren Doakotasun Programaren hartzailea den ikasleak behar bezala eta kontuz erabili eta zaindu beharko ditu liburuok; horrez gain, ikasturtea amaitzen denean edo ikaslea beste ikastetxeren batera joaten delako baja ematen zaionean, testuliburuak ongi zainduta eta erabilia itzultzeko betebeharra izanen du...".

Testuliburuak itzultzea, COVID-19ak gaur egun eragin duen egoeran: testuliburuak ekainean itzuliko dira, ikasturtearen amaieran, ikastetxe bakoitzak ezarritako modu eta datetan. Behin ikastetxeak liburuak entregatzeko hitzordua eskaini duela, ikasleen legezko ordezkariak eskatutako liburu guztiak entregatzen dituztela egiaztatu beharko dute. Ikastetxeak, liburu guztiak egiaztatu ondoren, hauen entregak erregistratuko ditu, eta hauek ukitu gabe, ikasgeletan gordeko dira, 14 egunez gutxienez.

- **Zaintza**: Erregelamenduaren 5.3 artikularekin bat: "funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek haietan matrikulatutako ikasleek erabilitako testuliburuak ongi erabili daitezzen zainduko dute, bai eta iraun dezaten ere, testuliburuak erabiltzen dituzten aldietan".

- **Datak**: ikastetxeek zehaztuko dute zein egunetan itzuli behar diren liburuak, beraien beharren arabera. Betiere, berrikuste eta ordezte lanak betetzea ahalbidetuko da. Geroago azalduko dugu hau guztia.

2.2.- TESTULIBURUAK BERRIKUSTEA:

- **Eskumena eta epea**: Erregelamenduaren 13.2 artikularen arabera, ikastetxeko eskola kontseiluak aukeratzen duen batzordeak (Oinarrizko Irakaskuntzarako Testuliburua Finantzatzeari buruzko martxoaren 25eko 6/2008 Foru Legean aipatutakoa) berak ezarritako prozedura betez, **2020-2021 ikasturtea hasi baino lehen** berrikusiko ditu testuliburu guztiak.

- **Liburuaren egoera**: Ikastetxe publikoek nahiz itunduek EDUCAn idatziko dute zein den liburuaren kontserbazio egoera, aipatuz, itzuli ez diren liburuak diren edo hondatuta dauden.

- **Ondorioak**: Materiala ez itzultzeak edo hondaturiko materiala ez ordezteak ikasleari eragotziko dio ondoko ikasturtean Doakotasun Programan sartzeari, materiala itzultzen edo ordezten ez duen bitartean.

2.3.- IKASLEEN ORDEZKARIEK MATERIALAK ORDEZTEA:

- **Ordeztu beharra**: Erregelamenduaren 7.2 artikulua ondokoa ezartzen du: "testuliburua hondatzen bada edo galtzen bada, ikasleen legezko ordezkariak hondatu edo galdutako material horren ordez berria erosi beharko dute, erregelamendu honetan ezarritakoa betez". (61/2010 Foru Dekretua).

Ikaslearen legezko ordezkariak ez badute betetzen materiala berritzeko betebeharra, ikasleak utzi egingen dio Doakotasun Programaren hartzaile izateari, harik eta galdutako edo hondatutako materiala berri dela frogatzen den arte.

- Jakinarazpena eta eguna: Erregelamenduaren 13.3 artikulua ondokoa xedatzen du: "testuliburuak berrikusi ostean, liburuak gaizki erabili dituzten ikasleen legezko ordezkariak jakinaraziko die galdutako edo hondatutako liburuen ordez berriak erosi beharko dituztela; berritze hori egiteko epea adieraziko die. Jakinarazpena jaso den egunetik hamar egun baliodun izanen dituzte, gutxienez, horretarako."

- Jakinarazpen-dokumentua: Ikastetxe publikoetarako zein itunduetarako, EDUCA aplikazioak dokumentua sortuko du ikasleen ordezkariak jakinarazteko materialak ordezteko beharra dutela.

- Ordezpenaren kontrola: Ikastetxe publikoek zein itunduek ordezenaren berri emanen dute EDUCA aplikazioan.

Ikaslea ikastetxez aldatzen bada 2020-2021 ikasturtean, jatorrizko ikastetxeak ikaslearen legezko ordezkariak "Materiala itzuli izanaren egiaztatzea" emanen die. Bertan azalduko da, hala bada, materiala itzuli edo ordezkatu dela. Agiria *EDUCA*n dago eskura: *Zerbitzu osagarriak ->Testuliburuak-> Itzulketak*.

3.- **IKASMAILA GUZTIAK**

JASOTAKO KOPURUEN BEHIN BETIKO JUSTIFIKAZIOA:

- **Eskumena, epea eta dokumentazioa**: Testuliburuaren Doakotasun Programako sarreraren eta gastuen behin betiko justifikazioa eskola kontseiluaren bidez onetsiko da; horretarako, eskola kontseiluak onetsiko du ikastetxeak testuliburuak erosteko dituen kontuen egoera, ateratzen den saldoa adieraziz

Ikastetxe **publikoek EKAINAREN 30a BAINO LEHEN** ikastetxeko eskola kontseiluaren ziurtagiria posta elektronikoz igorri beharko dute Hezkuntza Departamentura: gratuidad.libros.texto@navarra.es. "**Kontuak onetsi izanaren ziurtagiria**" dokumentuaren eredia EDUCAn egonen da eskuragarri. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea.*

Kontuak Onartzeko Ziurtagiriari dagokionez, gogorarazi behar dizuegu **itunpeko** ikastetxeek **EKAINAREN 30A BAINO LEHEN** bidali beharko dutela lehen aipatutako ikastetxeko Eskola Kontseiluaren ziurtagiria, "Kontuak onartzeko ziurtagiria" izeneko dokumentuaren eredian, posta elektronikoz bidez, gratuidad.libros.texto@navarra.es, eta **bete beharko dituztela webgunean** eskuragarri egonen diren diru-sarreraren eta gastuen **inprimakiak**.

- **Kontabilitateko dokumentazioaren zaintza**: egindako gastuaren jatorrizko frogagiriak eta gainerako dokumentu ekonomikoak (hauek ere jatorrizkoak) ikastetxeak gordeko ditu, baina Hezkuntza Departamentuak nahi izanez gero eskuratu ahal izanen ditu.

- **Erabili gabeko kopuruak itzultzea**:

Ikastetxe **itunduetan**, ikastetxeko eskola kontseiluak onetsitako kontabilitatearen arabera zenbatekorik baldin badago Doakotasun Programan aplikatu ez dena eta erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko ere erabili ez dena, diru kopuru hori itzultzeko eskatuko die Hezkuntza Departamentuak.

Ikastetxe **publikoetan**, eskola kontseiluak Doakotasun Programarako onetsiriko kontabilitateko saldoa positiboa baldin bada, 250/1992 Foru Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da (250/1992 Foru Dekretua, uztailaren 6koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko ez-unibertsitarioen funtzionamenduak sortzen dituen diru-sarrera eta gastuen erregimena arautzen duena).

4.- BERRITZE PARTZIALA

Soilik salbuespenez, eta arrazoiturik, berritze partziala utzi zaie 2020-2021 ikasturtean sortak berritu behar dituzten ikastetxe batzuei, liburu sortek 5 urte baitute.

Aukera horretan, berritu gabeko liburuetan, ordeztan ahal direnen portzentajea %8 izan daiteke.

5.- DOAKOTASUN PROGRAMA KUDEATZEKO SISTEMA

Ondoko mailetako ikasleak dituzten ikastetxeek:



- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetakoa

- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1., 2. 3. eta 4.eko ikasmailetakoa,

liburu berriak hartzea hautatu badute

Programa kudeatzeko bi modalitate hauetatik bat aukeratu beharko dute:

- Ikastetxeak emandako bonua.
- Ikastetxeak berak aukeratutako kudeaketa.

Ondoko mailetako ikasleak dituzten ikastetxeek:

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1., 2., 3. eta 4.eko ikasleak dituztenek, **ordeztea** erabaki badute, ondokoa hautatuko dute:

- Ikastetxeak berak aukeratutako kudeaketa.

Aukeratutako kudeaketa sistemaren gaineko informazioa ikasturtea bukatu baino lehenago emanen zaie ikasleen legezko ordezkariari, EDUCAn eskuragarri izanen den informazio gutun baten bitartez.

Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea: informazio hau EDUCA aplikaziotik hartuko da. Horretarako, ikastetxeek datuak **2020ko abuztuaren 31** baino lehenago bete beharko dituzte. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea.*

6.- HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN GAINEKO ZEHAZTAPENAK

Ikasleak: hezkuntza premia bereziak (HPB, hemendik goiti) dituzten ikasleen egoerak askotarikoak dira eta Doakotasun Programak haiei guztiei eman behar die erantzuna. Hori hala izanik, halako diagnostikoa izan eta material egokitua erabiltzen duten ikasle hauendako ikasleko dotazio bat ezarri da 2020-2021 ikasturterako, ikasle horiek derrigorrezko irakaskuntzako zeinahi ikasmaitan matrikulaturik daudela ere.

Beren ikaskideen material bera erabiltzen badute, HPBak dituzten ikasleek haien tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programari dagokionez.

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailtan matrikulaturik badaude, HPBak dituzten ikasleek beren ikaskideen tratamendu bera izanen dute Doakotasun Programari dagokionez, edozein izanik ere erabiltzen duten materiala.

- Departamentuari jakinaraztea: ikastetxe publikoen zein itunduen kasuan, EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek datuak 2020ko abuztuaren 31 baino lehenago bete beharko dituzte. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ukoak eta HPB.*

7.- ERABILERA OROKORREKO CURRICULUM MATERIALAK ETA/EDO IKASTETXEAK BERAK PRESTATUTAKOAK

- **Kontzeptuak**: Testuliburuaren Doakotasun Programaren ondorioetarako, erabilera orokorreko curriculum materialtzat hartuko dira ikasleek partekaturik eta, hala dagokionean, irakasleek ere erabiltzen dituzten edozein bitarteko edo euskarrirako materialak, baldin eta testuliburuak ordezkatzeko badituzte. Zikloko edo gelako programazioan, hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan ezartzen diren helburu pedagogikoak betetzea izan behar da material horien helburua.

Ikastetxeak berak prestatutako curriculum materialtzat hartuko dira irakasleek edo ikastetxeko irakasle taldeek egindakoak, baldin eta zikloko edo gelako programazioan, hezkuntza proiektuan eta curriculum proiektuan ezarritako helburu pedagogikoak betetzeko badira.

- **Departamentuari jakinaraztea**: ikastetxe publikoen zein itunduen kasuan EDUCA aplikaziotik hartuko da informazioa. Horretarako, ikastetxeek datuak **2020ko abuztuaren 31** baino lehenago bete beharko dituzte. Educaren materialak konfiguratzeko dira, testuliburuarekin batera, hemen: Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa. Ondoren, sorten esleipenak egiten dira, hemendik: *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena*.

8.- MATRIKULA IGOERA, AUKERAKO IRAKASGAIK HAUTATZEAREN ETA/EDO GAINDITU GABEKO IRAKASGAIEN ONDORIOZKO BEHAR BERRIAK ETA BEHARRAK PROGRAMA ELEANIZTASUNAK EZARTZEAGATIK

Kontzeptua: matrikula igoera dagoela esaten da ikastetxe bateko ikasmaita bateko ikastalde guztietako ikasle kopuruan guztira gertatzen bada igoera, ikasturte baten bukaeratik hurrengoaren hasierara.

Ordainketa: matrikularen igoera ordainduko da Hezkuntza Departamentuak 2020ko abuztuaren 31 baino lehenago dituen datuen arabera, eta programan sartu diren ikasleei dagokien ordainketarekin batera.

Ikastetxe publikoetan eta itunduetan, EDUCA aplikaziotik hartuko da matrikularen igoeraren gaineko informazioa.

Testuliburuak erosi behar badira, ikasleek **aukerako irakasgaiak** hautatu dituztelako edo aurreko ikasturteetan **gainditu gabeko irakasgaiak** dituztelako, edo **programa eleaniztasunak ezartzeagatik**, Hezkuntza Departamentuari eskatuko zaizkio horretarako EDUCAn (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Kudeaketa modalitatea*) eskura izanen den "Aukerako irakasgaiak hautatzearen edo gainditu gabeko irakasgaien ondoriozko beharrak" izeneko agiria posta elektronikoz bidaliz **2020ko urriaren 31 baino lehenago, txosten edo azalpen txiki batekin batera**.

9.- GASTUAK FINANTZATZEA IKASLEEI EGOZTEN AHAL EZ ZAIZKIEN ARRAZOIENGATIK HONDATUTAKO EDO ITZULI GABEKO MATERIALAK ORDEZTEKO

Berriz erosterik izan ez diren testuliburuak zuzenean erosiko ditu ikastetxeak eta 2019-2020 ikasturteari dagokion **gerakinaren** kargu finantzatuko dira, **erabilera orokorreko ikasmateriala eta material informatikoa erosi aitzin.**

Baldin eta Administrazioak ikastetxe bati egiten dion ekarpena, guztira, ez bada aski aurreko paragrafoan aipatu bezala testuliburuaren erosketa finantzatzeko, ikastetxeak **txosten** bat bidaliko dio Hezkuntza Departamentuari, inguruabar hori kontabilitatearen aldetik justifikatuz, eta defizita finantzatzea eskatuko dio. Eskaera hori egingen da **2020ko abuztuaren bukaeran** ikastetxeei bidaliko diegun inprimaki baten bidez (TESTULIBURUAK ORDEZKATZEKO eta/edo PARTE BATEAN BERRITZEKO ZENBATEKOEN ESKAERA, 2020-2021 IKASTURTERAKO inprimakia).

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeei eska diezaieke hondatutako materiala emateko; horrela, materiala aztertuko du, benetan gertatutakoa egiaztatuko eta, behar izanez gero, liburuak ordezteko aintzat hartu behar diren irizpideak aldatuko ditu.

10.- IKASLEAK IKASTURTE BITARTEAN IKASTETXEAN SARTZEA

- Ikasle sartu berriak: ikasturtean zehar ikasle berriak sartzan badira ikastetxean eta, ondorioz, testuliburu berriak eskuratu behar badira, testuliburu horiek erosteko behar beste diru emanen zaio ikastetxeari.

Ikastetxe publikoetako zein itunduetako informazioa EDUCAtik hartuko da.

- Ikastetxez aldatzea: ikasle bat 2021eko apirilaren 30a baino lehenago ikastetxe batetik bestera joaten bada testuliburuak entregatuko dituela begiratu da eta "Itzulketa-agiria" luzatuko da. Eredua Educan sortzen ahalko da (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Itzulketak*). Ikaslearen legezko ordezkariari emanen zaien ziurtagiri horretan destinoko ikastetxeari esanen zaio liburuak eman zaizkiola eta zein den haien kontserbazio egoera.

Destinoko ikastetxeak "Itzulketa-agiria" ematea eskatuko die ikaslearen legezko ordezkariari. Ziurtagiri horrek itzulketa behar bezala egin duela esaten badu, destinoko ikastetxeak ikasle horri liburuak emanen dizkio, ikastetxeak berak dituenak, edo, bestela, ikastetxeak berak erosiko dituen liburu berriak.

11.- DIRU ZUZKIDURA ETA HAREN APLIKAZIOA

a) 49/2020 Foru Aginduak, maiatzaren 27koa, Hezkuntza Kontseilariak emana, Administrazioaren gehieneko zenbatekoa finkatzen du 2020/2021 ikasturterako testuliburuaren doakotasun programa finantzatzeko. (Honekin batera doa Foru Agindua)

b) Transferentzia: Hezkuntza Departamentuak ikastetxeetako funtzionamendu gastuetarako baimendutako kontuetan sartuko ditu ordaindu beharreko zenbatekoak, Testuliburuaren Doakotasun Programa gauzatu ahal izateko. Zenbateko osoaren %80 urte bakoitzeko irailean ordainduko da, Hezkuntza Departamentuak 2020ko abuztuaren 31 baino lehenago dituen datuen arabera, eta gainerako %20a, ikasturteko lehen hiruhilekoa bukatu baino lehenago, hala behar denean, bidezkoak diren erregularizazioak egin ondoren.

c) Aplikazioa: Administrazioak ikastetxe bati egiten dion guztizko ekarpena, guztira, handiagoa bada testuliburuaren balio errearen guztizkoa baino, jarraibide hauen zortzigarren puntuaren arabera eta berritze beharrak finantzaturik, gerakina baliatzen ahalko da erabilera orokorreko material didaktikoa eta informatikoa erosteko.

Baldin eta, ikasle bakoitzeko, administrazioak onetsitako modulua txikiagoa bada testuliburuaren sorta bakoitzaren kostua baino, ikasleen legezko ordezkariak ordainduko dute diferentzia hori, eta, hala ere, hurrengo ikasturtean testuliburuaren erabiltzeko eskubidea besterik ez dute bereganatuko horregatik.

12.- IKASTETXEAK EMANDAKO BONUAREN BIDEZKO KUDEAKETA

Kudeaketa sistema hau soilik aukeratu ahal izanen dute ikasleak ondoko ikasmailatan dituzten ikastetxeek:

- Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailatan.
- Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. eta DBHko 1., 2. 3. eta 4. ikasmailatan, liburu berriak hartzea hautatu badute.

Gainerako kasuetan, testuliburuak soilik erosiko dira liburuak ordeztu behar direnean edo matrikula igo denean. Bi kasuetan ikaslea zein ikastetxetan dagoen matrikulaturik, ikastetxe horrek emanen dizkio testuliburuak.

Bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak hautatzea Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetakoko ikasleendako, eta testuliburuak berritzea aukeratu duten Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. ikasmailetakoko eta DBHko 1., 2., 3. eta 4. ikasmailetakoko ikasleendako.

Hezkuntza Departamentuak informazioa jarriko du ikastetxeen eskura argialetxeek ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuaren eta/edo curriculum materialen gainean emandako datuekin. Ikastetxe publikoek zein itunduek informazio hori EDUCA aplikazioan izanen dute eta aukeraketa han zuzenean egiteko aukera izanen dute. (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa*).



Departamentuak emandako datuak informatiboak dira soilik. Bi kasuetan, zerrendan sartu gabe dauden ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak aukeratzeko ahalko dituzte ikastetxeek. Ondorio horietarako, ikastetxeek Departamentuari adieraziko diote zein diren ikasleek bakarka erabili beharreko testuliburuak eta curriculum materialak eta Departamentuak argialetxeei informazioa eskatu ondoren zerrendan sartuko ditu.

Liburuak aukeratzeko, ikastetxeek bermatu beharko dute testuliburuak betetzen dituztela Nafarroako Gobernua hezkuntza-etapetako hezkuntza-curriculumen garapenaren gainean oro har onetsitako araudia eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

EDUCAn liburuak aukeratzeko eta **sortak konfiguratzeko** unean, arreta berezia jarri behar zaie zenbait gauzari:

- Liburu **sorten esleipena** egitea ikasle bakoitzari (bestela ez da ordainketa sortzen).

- Liburu sorta SORTA BERRIEKIN konfiguratzeko ari diren ikastetxeek ez dute hautatu behar inongo libururik zaharra-ordeztu esaldiarekin, **ezta 2025 aurreko indarraldiko libururik ere**.

- Liburu horiek **2025** iraungiko dira, loteek 5 urtez egon behar dutelako ikastetxean eta argialetxeak konpromisoa hartu duelako 5 urteko epean editatzeko.

2019-2020 ikasturtea bukatu baino lehenago, ikastetxeek ikasleek bakarka erabili beharreko testuliburuak eta curriculum materialen zerrenda aukeratzeko dute eta legezko ordezkariari emanen diete, haiek nahi duten establezimenduan erreserba ditzaten.

- Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea:

- **Ikastetxe publiko eta itunduak: 2020ko abuztuaren 31** baino lehenago EDUCAn grabatuko dute Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetarako eta testuliburu berriak hautatu dituzten Lehen Hezkuntzako 3., 4. 5. eta 6. ikasmailetarako eta DBHko 1., 2., 3. eta 4. ikasmailetarako ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialen zerrenda, bakoitza dagokion atalean, eta hura kasu handiz berretsiko dute. (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa eta Liburuaren esleipena*).

- Bonua luzatzea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: ikasleek bakarka erabiltzeko liburuak eta curriculum materialen zerrenda aukeratu eta EDUCAn behar den atalean grabatuko dute, eta hura kasu handiz berretsiko dute Programan sartutako ikasle guztiei bonua EDUCAn bitartez luzatuko zaie, uko egin diotenei izan ezik. (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Bonuak botoia)*).

Ikastetxeek bonuaren balioa egiaztatuko dute jarraibide hauetako 11. puntuan ezarritakoaren arabera.

- Kudeaketa prozedura:

Ikastetxe guztiek ikasle bakoitzeko bonu baten lau ale emanen dituzte:

- Ikastetxearendako alea: ikastetxeak beretako hartuko du bonua ikasleari eman zaion frogagiri moduan.
- Ikastetxeak bonuaren gainerako hiru aleak ikasleari emanen dizkio:
 - Ikaslearendako alea: liburuak hartu ondoren, ikastetxeari itzuliko dio liburuak non erosi diren jakin ahal izateko.
 - Bi ale liburu dendarako:
 - Liburu dendak ale bat ikastetxera igorriko du fakturarekin batera.
 - Beste alea liburu dendan geldituko da frogagiri modura.
- Ikaslearen legezko ordezkariak Testuliburuaren Doakotasun Programari atxikitako dendetan erosiko dituzte testuliburuak (bonua onartuz, atxikipena egiten da), bonuaren 2 aleak aurkeztuta.
- Saltokiek ikastetxera igorriko dituzte luzatutako fakturak eta bonuaren ale bat.
- Ikastetxeak egiaztatuko du luzatutako bonuak jasotako faturekin bat datozela.
- Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, ikasmalarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. Ikastetxe publiko eta itunduetarako, EDUCAK itsaskin bat sortuko du. : *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuaren esleipena (Pegatinak botoia).*

13.- IKASTETXEAK BERAK AUKERATUTAKO KUDEAKETA.

Soilik liburuak ordeztuko diren eta matrikula igoera dagoen ikasmailetan.

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6.eko eta DBHko 1., 2. 3. eta 4.eko ikasleak dituztenak, ordezte hautatu badute.

- Testuliburuak soilik erosiko dira liburuak ordeztu behar direnean edo matrikula igotzen denean eta, hartara, beti sistema honen bitartez egingen da.

Bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak hautatzea aurreko puntuko ikasleendako zein aukera hau hautatu duten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetakoko ikasleak dituzten ikastetxeendako:

Hezkuntza Departamentuak informazioa jarriko du ikastetxeen eskura ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuaren eta/edo curriculum materialen gainean argialetxeek emandako datuekin. Ikastetxe publikoek zein itunduek informazio hori EDUCA aplikazioan izanen dute eta aukeraketa han zuzenean egin ahal izanen dute (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa*).

Departamentuak emandako datuak informatiboak dira soilik. Bi kasuetan, zerrendan sartu gabe dauden ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialak aukeratzen ahalko dituzte ikastetxeek. Ondorio horietarako, ikastetxeek Departamentuari adieraziko diote, erosi aurretik, zein diren ikasleek bakarka erabili beharreko testuliburuak eta curriculum materialak eta Departamentuak argialetxeei informazioa eskatu ondoren zerrendan sartuko ditu.



Liburuak aukeratzerakoan, ikastetxeek bermatu beharko dute testuliburuak betetzen dituztela Nafarroako Gobernuak hezkuntza-etapetako hezkuntza-curriculumen garapenaren gainean oro har onetsitako araudia eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa.

- Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea:

Ikastetxe publiko eta itunduak: 2020ko abuztuaren 31a baino lehenago EDUCAko behar den atalean grabatuko dute Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. ikasmailetarako ikasleek bakarka erabiltzeko testuliburuak eta curriculum materialen eta gainerako ikasmailetarako esleitutako testuliburuak zerrenda, eta hura kontuz berretsiko dute. (*Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Ikastetxearen konfigurazioa eta Liburuak esleipena*).

- Kudeaketa prozedura:

Ikastetxeek testuliburuak erosiko dituzte berek ezarritako moduan eta fakturazioaren aldetik gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Fakturak ikastetxearen izenean egonen dira, eta, haietan, ezarritako baldintza formal guztiak jasoko dira.

- Fakturretan Doakotasun Programan sartutako testuliburuengatik ordaindutakoaren benetako salneurria agertuko da (eta *ez* beste kontzeptuengatik) Kontzeptu hori garrantzitsua izanen da kontuak onesteko ziurtagiriaren amaierako saldoa kalkulatzeko. Nafarroako Gobernuaren ekarpena gainditzen duen zenbatekoa legezko ordezkariak beren gain hartu beharko dute. Beraz, ziurtagiri horretan ezin izanen da saldo negatiborik agertu.

- Fakturak ikastetxeetan aurkeztuko dira.

Ikastetxeak testuliburuak ikaslearen izenarekin, mailarekin eta ikastetxearekin identifikatuko ditu, ikasturtea hasi eta lehen hamar egunetan. Ikastetxe publiko eta itunduetan, EDUCAk itsaskin bat sortuko du horretarako. *Zerbitzu osagarriak > Testuliburuak > Liburuak esleipena (Pegatinak botoia)*.

14.- IKASTETXE OSATUGABEAK

Ikastetxe osatugabetzat hartuko dira irakasten dituzten etapetako ikasmila bakoitzeko unitate bat ez dutenak.

Ikastetxe horien egoera bereziak kontuan hartzeko, testuliburuak, erabilera orokorreko materialak eta/edo ikastetxeak berak prestatzeko materialak erosi behar badira, ez matrikula igoeratik sorta osoak eskuratzeko beharra dagoelako (datu hau EDUCAtik hartzen da) baizik eta ikasle guztiendako edo batzuekiko liburu solteak erosi beharra dagoelako (irakasgai guztietan edo batzuetan maila desberdinetako ikasleak taldekatu behar direnean), Hezkuntza Departamentuari horren berri eman beharko diote, "Erosketa beharrak maila bat baino gehiagoko unitateak dituzten

ikastetxeetan" izeneko agiria betez. Agiri hori EDUCAn egonen da eskuragarri (*Zerbitzu osagarriak > Testu-liburuak > Kudeaketa modalitatea*). Aipatutako agiria Hezkuntza Departamentura igorri beharko da posta elektronikoz, gratuidad.libros.texto@navarra.es helbidera, **2020ko urriaren 31 baino lehenago**.